



Berriozar

BERRIOZARKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

2026ko OINARRIAK

1. Lehiaketan Berriozarko jaiekin lotutako gaiak aurkeztuko dira. Egile bakoitzak, gehienez, 3 lan aurkeztuko ditu. Lanak jatorrizkoak izanen dira.
2. **3 kategoria** izanen dira:
Haurrak: 11 urte arte.
Gazteak: 15 urte arte.
Helduak: 16 urte baino zaharragoak
3. **Neurria:** Helduen lanak: 30 x 42 cm, zutikako formatuan.
Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira (luma-kartoia edo antzekoa)
Haurren lanak: 15 x 21 cm, zutikako formatuan.
4. Kartelen **estiloa eta teknika** libreak dira. Irabazleak multimedia-teknika erabiliz gero, Udalak lan irabazlearen kopia CD batean ematea eskatu ahalko dio.
5. Lan guztietan honako testua idatziko da:
Fiestas de Berriozar del 26 al 30 de agosto de 2026
Berriozarko Jaiak 2026ko abuztuaren 26tik 30era.
Lanek originalak eta argitaragabeak izan beharko dute, eta ez da adimen artifiziala erabiliko horiek egiteko.
Lehiaketatik kanpo geratuko dira baldintza horiek betetzen ez dituzten kartelak.
6. Kartelak **Berriozarko Udaletxeko Auzo-Bulegoan aurkeztuko dira** (Euskal Herria plaza, 1, 31013 Berriozar) **maiatzaren 5tik 29ra, goizeko 8etatik 13:30era.**
7. Kartelak gutunazal itxi batean aurkeztuko dira egilearen sinadurarik gabe eta aukeratutako izenburua idatzita. Beste gutunazal batean, itxita eta izenburu bera idatzita, egilearen datuak sartuko dira: izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, adina, helbidea, herria eta telefonoa; baita aurkeztutako lanaren esanahiari eta motibazioari buruzko azalpen laburra ere. Horrez gain, aurkeztutako lana originala eta argitaragabea dela adierazten duen adierazpen sinatu bat ere aurkeztu beharko da.

8. Kartelaren izenburua gaztelaniaz, euskaraz edo bi eletan aurkeztuko da. Hizkuntza bakarra aukeratzeko bada, Berriozarko Udalak itzulpena egiteko eskubidea izanen du.

9. **Epaimahaia** Kultur Koordinakundeko kideek eta langile teknikoek osatuko dute. Koordinakundeburua izanen da epaimahaiburua.

Kultur Teknikariak idazkari lanak eginen ditu (hitza izanen du eta botorik ez)

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta ohiko hedabideen bitartez jakinaraziko da.

10. **Sariak:** helduen kategoriko lehen saria eskudiruzko ordainketa izanen da, dagokien PFEZ kenduta. Helduen herriko kategorian eta haurren kategorietan, sariak herriko dendetan trukatzeko baleak izanen dira.

Helduak: 600 euro

Helduak (berriozartarrak): 300 euro

Haurrak: 150 euro

11. Berriozarko Udala izanen da saritutako kartelen jabea. Berriozarko Udalak kartel sarituen nahi adina erreproduzio litografiko edo bestelakoak egin ahalko ditu, nonahi erabiltzeko, eta egileek ez dute inolako erreklamaziorik egiterik izanen.

12. Berriozarko Udalak erakusketa antolatuko du abuztuaren 18tik 26ra parte hartutako kartel guztiekin edo horietako batzuekin. Kartelak aipatu erakusketa bukatu eta hilabeteko epean itzuliko dira.

13. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Arau hauetan airreikusi gabeko edozein zalantza edo gorabehera epaimahaiak ebatziko du.

14. Datuen Babeserako Oinarrizko Informazioa.

Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Berriozarko Udala da. Tratamenduaren helburua lehiaketa kudeatzea eta garatzea da, publizitate instituzionala barne, eta hori guztia 679/2016 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluan oinarriturik. Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta beste eskubide batzuk baliatzeko eskubidea izango dute, www.berriozar.eus webguneko pribatutasun-politikan edo Datuak Babesteko ordezkariaren helbidean, dpd@berriozar.es, kontsulta daitekeen informazio zabalduan adierazten den bezala.



Berriozar

I. ERANSKINA

BERRIOZARKO 2026ko JAIETARAKO KARTEL PROPOSAMENAREN JATORRIZKO EGILETZAREN ZINPEKO AITORPENA

Behean sinatzen duen pertsonak edo pertsonak AITORTZEN DUTE, zinpean,
Berriozarko 2026ko jaietarako

kartel-proposamenaren egileak direla, eta proposamen hori originala dela eta ez dela adimen artifizialeko programekin egin, ez osorik ez zati batean.

Era berean, prozesua abian den bitartean aurkeztutako obraren irudia eta egiletza publiko ez egiteko konpromisoa hartu dute, bai eta deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintza guztiak osorik betetzekoa ere.

EGILEAREN IZEN-ABIZENAK

SINADURA:

_____ (e)n, 2026ko _____ aren _____ (e)an